

ZEHARKAKO FLAUTA IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

HELBURU OROKORRAK

- a) Zeharkako flautaren soinuaren edertasuna estimatzea
- b) Erlaxatuta eta ahoko eta gorputzeko muskuluak kontrolatuz jotzea. Ahoa eta ahokadura modu egokian jarrita, gorputza postura egokian jarrita eta zeharkako flauta modu egokian hartuta jotzea
- c) Arnasketa diafragmatikoa erabiliz jotzea
- d) Soinuaren ezaugarriak eta aukerak ezagutu eta hauek erabiliz jotzea (emisioa, sonoritatea...)
- e) Afinazio-teknikak eta -baliabideak ezagutu eta praktikan jarri jotzea
- f) Dinamika eta ñabardura egokiak erabiliz jotzea
- g) Maila bakoitzeko teknika egokia erabiliz jotzea
- h) Jendaurrean, bakarka nahiz taldean, zeharkako flauta jotzea
- i) Oinarrizko ikaste-ohitura zuzenak eta egokiak garatzea
- j) Zeharkako flauta garbitzea, zaintzea eta mantenu-ohiturak garatzea
- k) Zeharkako flauta ezagutzearen bitartez musikarekiko estimua eta errespetua ikasleengan piztea

II. B MAILA, HELBURU ZEHATZAK • (II. A mailan hauen oinarrizko edukiak landuko dira)

- Erlaxazioa → erlaxatzen ikastea
- Muskuluen kontrola → ahoko eta gorputzeko muskuluak erlaxatzen ikastea
- Ahoa eta ahokadura → ahoa eta ahokadura modu egokian jartzen ikastea
- Gorputza → gorputzeko postura naturala eta egokia bilatzea
- Musika-tresna → tresna modu egokian hartzen ikastea
- Arnasketa →
 - Arnasketa-eraketak (tresnarekin eta gabe) biriketako edukiera garatzeko
 - arnasketa diafragmatikoaren praktika hastea
- Aire-zutabea → aire-zutabe uniforme botatzen ikastea
- Soinua → soinu uniforme lortzen ikastea
- Erregistroak →
 - erregistro ezberdinak ezagutzea
 - erregistro grabean jotzen hastea
- Afinazioa →
 - afinazio eta ez-afinazioaren kontzientzia hartzea
 - afinazio lantzen hastea
- Dinamika eta ñabardurak →
 - dinamika eta ñabardura ezberdinak ezagutzea
 - dinamika eta ñabardura ezberdinekin jotzen hastea
- Teknika →
 - mihia eta hatzen koordinazioa lantzen hastea
 - artikulazio sinpleak lantzen hastea

- Musika-hizkuntzako ezagutzak erlazionatzea eta musika-tresnara aplikatzea
- Abesti laburrak buruz jotzea
- Musika-tresnaren atalak ezagutzea eta ondo garbitzen ikastea
- Jendaurrean jotzea
- Ikasleak gelan ikasi dituen ikasketa-ohiturak etxean modu autonomoan errepikatzea

II. C MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Erlaxazioa → erlaxatuta jotzea
- Muskuluen kontrola → ahoko eta gorputzeko muskuluak erlaxatu eta kontrolatzen ikastea
- Ahoa eta ahokadura → ahoa eta ahokadura modu egokian jarriz jotzea
- Gorputza → gorputza postura natural eta egokian jarriz jotzea
- Musika-tresna → tresna modu egokian hartzea
- Arnasketa → arnasketa diafragmatikoa garatzea
- Aire-zutabea → aire-zutabe uniforme botatzea
- Soinua → soinu uniformearekin jotzea, sonoritate garbiagoa eta egonkorragoa bilatzea
- Erregistroak →
 - erregistro grabea menperatzea
 - erdiko erregistroan jotzen hastea
- Afinazioa → afinazioa zehatzago lantzea
- Dinamika eta ñabardurak → dinamika eta ñabardura ezberdinekin jotzea
- Teknika →
 - mihia eta hatzen koordinazioa garatzea
 - hatz-joko egokia garatzea
 - artikulazio ezberdinen erabilera garatzea
- Zehaztasun erritmikoa lantzea
- Musika-tresna jotzerakoan naturaltasuna eta erlaxazioa garatzea
- Buruz jotzen ohitzea
- 1. aldiko irakurketa

II. D MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Erlaxazioa → erlaxatuta jotzea
- Muskuluen kontrola → ahoko eta gorputzeko muskuluak kontrolatuz jotzea
- Ahoa eta ahokadura → ahoa eta ahokadura modu egokian jarriz jotzea
- Gorputza → gorputza postura natural eta egokian jarriz jotzea
- Musika-tresna → tresna modu egokian hartzea
- Arnasketa → arnasketa diafragmatikoaren garapenean sakontzea
- Aire-zutabea → aire-zutabe uniforme botatzea
- Soinua → sonoritate garbia eta egonkorrekin jotzea eta homogeneotasuna lortzea
- Erregistroak →
 - erdiko erregistroa eta erregistro grabea menperatzea
 - goiko erregistroan jotzen hastea
- Afinazioa → erregistro ezberdinetan zuzentasunez afinatzea
- Dinamika eta ñabardurak → dinamika eta ñabardura ezberdinekin jotzea

- Teknika →
 - mihia eta hatzen koordinazioa sakontzea
 - hatz-joko egokia sakontzea
 - artikulazio ezberdinen erabilera sakontzea
- Hatz-joko (digitazio) zehatzagoa lantzea
- Zehaztasun erritmikoa egokiagoa garatzea
- Maila honetako artikulazio eta ñabardurak (matizeak) egoki menderatzea
- Ikasketa-ohitura egokiak garatzea
- Aire-emisioaren zehaztasuna garatzea
- Oso modu oinarrizkoan musika-egitura edo -esaldiak ulertzea eta interpretazioan aplikatzea
- Inprobisazioaren praktika hastea
- Maila honetako abestiak interpretatzea
- Buruz jotzeko ohitura garatzea
- 1. aldiko irakurketa

II. E MAILA, HELBURU ZEHATZAK

- Erlaxazioa → erlaxatuta jotzea
- Muskuluen kontrola → ahoko eta gorputzeko muskuluak kontrolatuz jotzea
- Ahoa eta ahokadura → ahoa eta ahokadura modu egokian jarritz jotzea
- Gorputza → gorputza postura natural eta egokian jarritz jotzea
- Musika-tresna → tresna modu egokian hartzea
- Arnasketa → arnasketa diafragmatikoa sakonago garatzea
- Aire-zutabea → aire-zutabe uniforme botatzea
- Soinua → soinu-kalitatearen bilaketan sakontzea
- Erregistroak → erregistro guztiak menperatzea
- Afinazioa → erregistro ezberdinetan zuzentasunez afinatzea
- Dinamika eta ñabardurak → dinamika eta ñabardura ezberdinekin jotzea
- Teknika →
 - mihia eta hatzen koordinazioa finkatzea
 - hatz-joko egokia finkatzea
 - artikulazio ezberdinen erabilera finkatzea
- Flexibilitatearen ikasketa hastea
- Artikulazio ezberdinak lantzea
- Maila honetako abestiak interpretatzea
- Buruz jotzeko ohitura garatzea
- 1. aldiko irakurketa
- Inprobisazioaren praktika garatzea
- Talde-lana hobetzea
- Garai ezberdinetako musika ezagutzea eta interpretatzeko garaian ezberdintasunak ulertzea
- Aurreko ikasturteetan hartutako trebetasun eta gaitasunak sendotzea

II. MAILAKO EDUKIAK

Haize-egurrezko musika-tresnen EDUKI ESPEZIFIKOAK

- a) Erlaxaziorako eta muskuluen kontrolerako ariketen praktika ahoa eta ahokadura modu egokian jartzeko, gorputzaren postura egoki bat hartzeko, tresna modu egoki batean hartzeko eta eskuen arteko koordinazioa izateko
- b) Arnasketa-ariketak (musika-tresnarekin eta gabe) biriketako edukiera garatzeko eta arnasketa diafragmatikoa hobetzeko
- c) Aurpegiko muskuluen indartze-ariketak (flexibilitatea, soinua zentratzea, etab.)
- d) Soinu-kalitate ona lortzeko eta entzumen-sentsibilitatea garatzeko ariketen praktika
- e) Afinazioa kontrolatzeko teknikak eta baliabideak
- f) Oinarrizko hezkuntzari dagokion dinamika eta ñabardura ezberdinen ikasketa
- g) Hatz-jokoaren oinarrizko printzipioak finkatzea, emisio eta artikulazio ezberdinen ikasketa
- h) Ikaslearen gaitasun teknikoaren garapen progresiborako ariketak: eskalak, arpegioak eta bitarteak (notarteak), artikulazio, abiadura, dinamika eta erregistro ezberdinekin
- i) Memoriaren prestakuntza iraunkor eta aurrerakoia
- j) Obra edo pasarte errazen 1. aldiko irakurketa
- k) Eskema harmoniko erraz, melodia txiki eta oinarrizko erritmoekin zuzendutako inprobisazio librearen praktika
- l) Ikasketa-teknikak eta ohitura on eta eragingarriak
- m) Musika-egituren ulermenera sarrera, intuizio hutsez egindako interpretazioak alde batera utzi eta interpretazio kontziente batera iristeko
- n) Ikus-entzunezko baliabideen bidez musika-tresnaren berezko obren ezagutza
- o) Landutako abestiak emanaldietan eskaintzea
- p) Ikaslearen interpretazio-gaitasunaren garapenerako estudio eta obrak
- q) Talde-praktika edota ikus-entzunezko baliabideekin egiten den praktika

Metodologiari dagokionez, saio bakoitzean arnasketa, postura eta sonoritatea 10 minutuz landuko dira. Ariketa hauek erlaxatzeko eta kontzentratzeko oso onak dira eta saioa hasteko modu on bat dira. Imitazioaren bidez ikaslea bere irakaslearen antzeko soinua ateratzen saiatuko da. Soinu-kalitate oneko adibideak erabiliko ditu irakasleak eredu on bat izateko. Azkenik, ariketen eta estudioen aukeraketa honela egingo da: behin teknikako lehenengo pausoak emanda dituenean, ikasleak paraleloki ikasiko ditu abestiak, ariketak eta estudio teknikoak. Honela guztia erlazionatuta dagoela ikusiko du.

Ebaluazio-irizpide orokorrak:

- Ikasgelan jarrera hartzaile eta positiboa izatea, ikaskuntza prozesu guztiak barneratzeko funtsezko bide bezala
- Mailari dagozkion partiturak tresnarekin egoki irakurri, interpretatu eta transmititzea
- Tresnarekin mailari dagozkion oinarrizko prozesu teknikoak menderatzea
- Mailarako programatutako abesti egokiak buruz ikastea
- Postura, mugimendu, gorputz jarrera eta integrazio egokiak hartzea
- Ikasgelan planifikazio-gaitasuna eta etxeko lan autonomoa erakustea
- Mailako piezak ikasgelan ikasi ondoren jendaurrean interpretatzea
- Talde-lanean ondo integratuta parte hartzea

II. B MAILA, EDUKI ZEHATZAK • (II. A mailan hauen oinarrizko urratsak landuko dira)

- Musika-tresnaren oinarrizko ezagutza, funtzionamendua eta zaintza. Tresnaren muntaia eta garbiketa
- Erlaxazio-ariketak aurrena flauta gabe, gero flautarekin
- Ahoko eta gorputzeko muskuluen erlaxazio-ariketak
- Ahoa erlaxatuta jarri eta ahokadura leku egokian kokatu
- Gorputzaren tresnarekiko postura naturalena bilatu eta erabili. Gorputzaren eta eskuen posizioa
- Musika-tresna modu egokian hartzen ikasteko ariketa errepikakorak
- Arnasa hartu eta botatzeko ariketak. Botatzen den airearen noranzkoa, abiadura eta tenperatura
- Arnasketako oinarrizko ariketak. Ohiko arnasketarekiko konparaketa
- Arnasketa-ariketa berriak. Airea sabelarekin “eustea” eta ezpainarekin “kontrolatzea”
- Arnasketa: airearen kanporaketa luzatzea eta kontrola hobetzea, airea azkarrago hartzea
- Arnasketa diafragmatikora sarrera (hurrengo mailatan, arnasketa diafragmatikoa lantzeko ariketak egingo dira, teknika horretan sakontzeko, menderatu arte)
- Soinu-ariketak ahokadurarekin bakarrik eta ondoren tresna osoarekin. Beste soinu batzuk
- Soinua ateratzea erritmoarekin batera
- Erregistro grabeko nota luzeak jotzea
- Afinazio-ariketak erregistro grabean afinadorearekin
- Oinarrizko dinamika eta ñabardura ariketak
- Hatz-joko eta artikulazio-ariketa sinpleak. Oinarrizko hatz-jokoa. Zortzidun ezberdinak
- Hatz-jokoak zabaldu. Ezagutzen diren notekin eskala eta arpegioak landu. Erregistro grabea eta erdiko erregistroa
- Hatz-jokoa: alterazioak. Eskala kromatikora sarrera. Hatz-joko aldaketak erregistro ezberdinetan. Do maiorren eskala eta arpegioa
- Artikulaziora sarrera. T letrarekin egindako artikulazioa
- Pikatu eta ligatuaren kontrola
- Psikomotrizitate-ariketak flautarekin eta gabe
- Musika-memoriaren potentziazioa eta garapena
- Musika-pasarte txikiak buruz ikastea eta inprobisatzea
- Sormen-ariketak
- Obra txikien ikaskuntza bai bakarka zein taldeka

Errepertorioa

- La flauta 1. Iniciación. Antonio Arias. Ed. Real Musical
- Curso de flauta. Trevor Wye. Ed. Mundimúsica
- Escuchar, leer y tocar Vol. 1. Matthijs Broers & Jaap Kastelein. Ed. de Haske

Ebaluazio-irizpide espezifikokoak

- Do maior eskala, beltza = 60 abiaduran, soinu gardenarekin eta ligatu eta pikatua eginez
- Liburuko 10 pieza hiruhilabeteko, soinu ona eta neurri egokia erabiliz

II. C MAILA, EDUKI ZEHATZAK

Aurreko mailarako aipatutakoez gain (arnasketa, postura, artikulazioa, eskalak, flauten arteko afinazioa...), honakoak:

- Eguneroko soinu-ariketak. Nota luzeak eta artikulatutako notak. Erregistro zorrotza
- Soinua: nota luzeak, homogeneousunaren bilaketa eta erregistro osoan soinu garbia. Soinu garbi eta egonkorrago bat izateko ariketak
- Tresnaren praktikako erlaxazioaren eta naturaltasunaren garapena
- Arnasketa eta esaldiekin lotutako iraupena
- Erdiko erregistro eta erregistro grabeko nota luzeak jotzea
- Afinazio ariketak erdiko erregistro eta erregistro grabean afinadorearekin
- Dinamika eta ñabardura ikasketa sakonagorako ariketak
- Zehaztasun erritmikodun hatz-joko eta artikulazio ariketak
- Erdiko erregistroko eskala kromatikoa. Eskalei aplikatutako artikulazioa
- Aldakari baterainoko eskala eta arpegioak
- Arnasketa: arnasa non hartzeko irizpideak
- Abesti motzen interpretazioa
- Musika-pasarte txikiak buruz ikastea eta inprobisatzea

Errepertorioa

- Curso de flauta. Trevor Wye. Ed. Mundimúsica
- Escuchar, leer y tocar Vol. 1. Matthijs Broers & Jaap Kastelein. Ed. de Haske

Ebaluazio-irizpide espezifikokoak

- Alterazio bat arteko eskalak, beltza = 80 abiaduran, ligatu, pikatu eta 2 ligatu, 2 pikatu artikulazioekin
- Liburuko 10 pieza hiruhilabeteko, soinu ona eta neurri egokia erabiliz

II. D MAILA, EDUKI ZEHATZAK

Aurreko mailetarako aipatutakoez gain, honakoak:

- Arnasketa: arnasketa-edukiera gehitzea. Erdiko arnasketak hasierako arnasketarekin parekatzea
- Erregistro guztietako nota luzeak jotzea
- Afinazio ariketak erregistro guztietan afinadorearekin
- Soinua: tinbre homogeneousuna lantzeko ariketak Moyse-n “Sonorité” liburuan oinarrituta
- Dinamika eta ñabardurak menderatzea
- Arnasketa, ñabardura, tonalitate eta artikulazioei buruz ikasitakoaren aplikazioa. “La Flute Classique” liburuko abestiak.
- Artikulazioa eta atakea hobetzeko ariketak, bereziki muturretako notetan, Moyse-n “Sonorité” liburuan oinarrituta
- Zehaztasun erritmikodun hatz-joko eta artikulazio ariketen menderatze egokia metronomoarekin
- Ikasketa-ohitura egokien garapena

- Eskala eta arpegio maior eta minorren praktika, aldakari eta artikulazio ezberdinekin: hasteko, eskala minorretara sarrera, bereziki minor harmonikoetara. Ondoren, biharren hiruhilekoan, eskala eta arpegio maior eta minorrak bi alterazio-arte. Hirudun bitartez (*terceras*) egindako eskala maior eta minorren sarrera. Eskala kromatikoak. Hirugarren hiruhilekoan, ikasitakoa sendotzea. Do3-tik Si5 arteko erregistroa
- Apaindura-notak ikasi
- Inprobisazio-praktika
- Talde-lanaren hobekuntza
- Musika estilo ezberdinen ezagutzara sarrera
- Musika-pasarte txikien 1. aldiko irakurketa
- Musika-pasarte txikiak buruz ikasteko tekniken garapena
- Sormen-ariketak. Inprobisazioa tonalitateekin: tonika eta dominantea

Errepertorioa

- La Sonorité. Marcel Moyse. Ed. Leduc
- Curso de flauta. Trevor Wye. Ed. Mundimúsica
- Escuchar, leer y tocar
- Berceuse Op.16, Fauré. Ed. Leduc

Ebaluazio-irizpide espezifikokoak

- Hiru alterazio-arte eskalak, beltza = 100 abiaduran, artikulazio ezberdinekin
- Liburuko 10 pieza hiruhilabeteko, soinu ona, ñabardurak eta neurri egokia erabiliz
- Bere mailara egokitutako pasarte baten 1. aldiko irakurketa

II. E MAILA, EDUKI ZEHATZAK

Aurreko mailetarako aipatutakoez gain, honakoak:

- Interpretazio egoki baterako gorputz eta buruko erlaxazioa. Auto-konfiantza
- Hirudun bitartez (*terceras*) egindako eskala maior eta minorrak 2 alterazio-arte. Bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan zehar, eskala eta arpegio maior eta minorrak 4 alterazio-arte (lehenengo hiruhilekoan, 3 alterazio arte)
- Taffanel et Gaubert-en eskalatarara sarrera. Hirudun bitarteko eskalak eta eskala kromatikoak
- Artikulazio eta flexibilitateko ariketak. Do3-tik Do6 arteko erregistroa
- Bitartekoan afinazio-ariketak
- Bibratora sarrera
- Musika-abesti luzeagoak buruz ikastea. Gariboldiren estudioak
- Estilo ezberdinetako obra edota estudioak interpretatzea
- Diploma-azterketarako prestakuntza

Errepertorioa

- La Sonorité. Marcel Moyse. Ed. Leduc
- Escuchar, leer y tocar
- 17 ejercicios diarios. Taffanel et Gaubert. Ed. Leduc
- Celebre Méthode Complete de Flute. Altés (10etik 20ra). Ed. Leduc
- Beltz txikia. Debussy. Ed. Leduc
- Berceuse Sicilienne, Op. 78. G. Fauré. Ed. Leduc
- Meditation de Thais. J. Massenet. Ed. Leduc

- “Método de Flauta” Vol. 2, Henry Altès. Ed. Real Musical
- Siciliana (G. Fauré)
- Pavana (G. Fauré)
- Madrigal (Gaubert)
- El pequeño negro (C. Debussy)
- Sonata en Do Menor Op. 2, nº 11 (B. Marcello)
- Sonata nº 2 en Do Mayor de “Il Pastor Fido” (A. Vivaldi)
- Andante en Do Mayor (W.A. Mozart)
- Echo (Hindemith)
- Sonata en Fa Mayor (Donizetti)
- Siciliana (J.S. Bach)
- Sonata en Sol Mayor (Finger)
- Tambourin (Gossec)
- Cinco piezas para pequeños flautistas (X. Boliart)
- Cinco piezas sobre temas japoneses (E. Bozza)
- Piece (G. Fauré)

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

- Lau alterazio-arteko eskalak, beltza = 80 abiaduran, artikulazio ezberdinekin eta kortxeatan
- Bere mailara egokitutako pasarte baten 1. aldiko irakurketa
- Bost estudio hiruhilabeteko
- Estudio bat buruz

TOBERA Musika-eskolan galdetu mailaz mailako egituraketa eta Plan Pedagogikoaz. Programazio didaktikoaren berri zehatza emango dizuegu, atsegin handiz.

Laburpen honetan ikaskuntza-helburu orokor eta espezifikoen, edukien (hauek kontzeptuzkoak, prozedurazkoak zein jarrerazkoak izan), ekintzen, eskuratu beharreko gaitasunen, ebaluazio-irizpideen edota metodologiaren inguruko zertzelada batzuk baino ez dituzue topatuko, kasuan kasu. Ikasle bakoitzera egokitu beharreko *bide-orri* modukoa baino ez da, beraz. Beti bezala, bada, informazio honen irakurketa osatzeko, nahi ala behar izatera, irakaslearengana berarengana zuzenean jotzea duzue egokien, eta horretara gonbidatzen zaituztegu.